

New-York'tik erritar baten berriyak

Gazte nitzala ikertzen nituben poz aundiyakin Madalen-jayetan ateratzen ziran **Rentería** edo **Oarso** errebista polit oyetan, batetik, Buenos Aires'en nolatan juan-etorriyak maiz egiten zituben gizon jator, pelotari bikain, ereslari ohea eta —zer esanik ez— erritar maitekorra, Samperio'tar Luis, jaun jator eta bioz-korrak. Eta gauza abek aski ez dirala, Buenos Aires'ko "Laurak Bat", euskaldunen kabi alai artan, bere zuzenbidez nola alkartu zituben 120 abots, gizon-emakumezkuak, izanik orduban Argentina'ko abes-batzarik onenetakoa. Nik, Jaunari eskerrak, nere begiakin ikusi nituben argazki ugari, eta entzun ere bai nere biyotzeko pozarekin, nola egiyak ziran erritarrak irakurtzen genitun berri ayek. Orrela, nere ibillera guzietan, Ameriketa'ko laterri geyenetan, beti topatzen nituben erritar jatorrak.

Ibillera luziena, egazkiñez, Buenos Aires'tik Mexico'ra izan du zan: ogeita amabi ordu egan, txoriyak bezela. Nai bai! Bada ezpadare egun orretan naiko zurruta egin genuben "balore" pixka bat izatearren, eta zorionez iritxi giñan Mexico'ra, eta bertan, ba al dakizute zeñekin topatu nitzan? Guruzeaga'tar Rafael, pelotari bikain izandako errenderiar jatorrarekin. Jakiña dago ang "Jai Alai" pelota-lekuban alkartu giñala poz aundiyarekin Jau-regi'tar Esteban eta Modesto, anai eta erritar jatorrekin eta abek buru zirala erriko-seme askorekin.

Nere abots kaskarraren kontura bost urte igaro nituben erri alai eta zoragarri artan. Orrela, bada, geyenian, Madalen-jayetan zerbait egiten gendun naiz eta urruti arkitu ere, bañan nere-tzat jairik alayena Buenos Aires'en izandu gendun. Ogeitamarrren bat lagun alkartu giñan: Xalomon Gimenez, Pepita Urigoitia, Txapelain, Loidi Aldazabal, oraingo alkate jaunaren anai-arrebak, Buxelo aizpak eta eztakit zenbat geyago. Neonek nere klarinetiakin "El Centenario" jo eta eztarriya larrutu arte abestu genduben danak ondo bazkaldu ondoren, jakiña, kantatu egin bear. Orrela, Madalen-jai geyenak pozik igaro nituben, batetik orduban etorri berriya nitzalako edo... Egiya esan, ez da ori. Orain lan egin nai degunian, lenengoko itza auxa esaten digute: "Do you speak English?" Eta jakiña dago, nere kaskezurra ez dago orain ogeitamar urte bezela, eta garai batean Txirrita bertsolari zanari erderakin gertatzen zitzaiona gertatzen zait:

Euskeraz aztu eta
erderaz jakin ez,
asi bear det laister
ikasten latíñez.

Esakerak diyona: Aurreak erakusten du nola dantzatu átzea.

New York onetara etorri nitzan orain illabete batzuk eta gaztetan ikasitako lantegi batian egiten det lan. "Factory" txiki bat da —24' garren bizitzan daukagu oraingoz— eta eskerrak bertan kubano batzuk lan egiten dutela, bañan zer-edo-zer ikasi det ingleseaz (ikasi bearko, lantegi ohea billatu nai dubenak!). Emen, langille geyenak astelenetik ostiralera lan egiten dute. Lau egun abetan pausorik ezin da eman kalean, eta igandean jende guziya kanpora juaten da. Orduban kaleak utsik agertzen dira: ori bai, dendak zabalik badira ordu guziyetan.

Jai-eguna ez da guztiz ona emen zurrutero batentzako, batez ere goiz-aldean. Arratsaldeko ordubatean zabaltzen dituzte edari-etxe guziyak, eta ortik aurrera bai, goizeko seirak arte danak zabalik. Lur-azpiko bultziyak gau eta egun guziyan lan egiten dute: au langilleantzako guztiz bearrezkoa da.

Emengo berriyak bialtzeko asmoz asi naizen ezkerro, or dijoaz bada batzuk. Ni zein naizen ez det esan bearrik; uste det usayean ezagutuko nazutela geyenak, bañan, ni idazle eta gutxio ez izan arren izki abek erriko seme baten maitetasun osoaz be-

teak dijoaz, aurtengo Madalenetan zuben kutsu apur bat bear baitet "gringo" aben umore kaxkarra alde batera jaurtitzeko. Emengo umorea, alaitasuna, dana, ba al dakizute zer dan? Dolarra! Legeak danetik dirade onak, guztiz onak... batzuentzako!, bañan zarata ta iskanbilla ederrak badira emen, urrutira jun gabe, bertan jayotako beltzakin. Birmingham ortan gauzak benetan beltzak dira, batez ere egun abetan: ikastoletan, elizetan eta kalietan gerratean bezela dabilzate gudariyak beren iskilluak bizkarrean artuta. Beltzak gaiztoak baldin badira, zuriyak ere badira berak aña. Oyek ere guk bezelaxe daukate odol, gorputz eta anima. Itz batean, ez al dirade Jaungoikoaren semeak?

Elizkizunetan ere, gauza politik ikusten dira. Badakizute gure elizak bañan geyago dirala beste alderdikoak, bañan eliza katolikoetan orko argizai-usairik ez da sentitzen: badirudi kan-delak ere bitaminakin egiten dituztela, emen jendeak ugari artzen baiditu "vitamiñak" eta "kitamiñak".

Koruetan, abesbatzak guztiz kaxkarrak dira. Ni, beñipein, on bat entzuteko nago oraindik. Nik abestutzen detan elizan, geyenaz bost gizonezko gera eta eskerrak emengo koruetan emakumeak kantatzen dutela, eta orrela ogeiren bat lagun al-kartzen gerala. Orko eztarri ugari ederrak emengo urre guzi-yarekin ez dira ordaintzen.

Apaiz euskaldun mordoxka badago emen: Aita Madina, apaiz agurgarriya eta ereslari ona, Zumarraga'ko Larrañaga gaztea, Mondragoitarrak eta abar. Errenderiar bat billatzea, or-dea, ez da errex: Mikela-zuloren batean gordeak ote daude? Eskerrak "Jai-Alai" ostatuko argazki eder batean, pelotari-mordo baten artean, Meltxor Guruzeaga ikusten detala tarteka-tarteka. Noiz-edo-noiz alkartzen gera Juanito Oñatibia, oyartzuar jatorra, eta beste bi anai altzibartarrak.

Jaunari eskerrak, udara etorri zaigu. Ze negu gogorra igaro degun. Jaungoikoari biyotzez eskatzen diyot osasuna eman dezayola nere senidiyari eta ludi guziko jende guziyari. Ori bai, orain iñoiz bañon geyago gogoratzen naiz nere txoko maite ortaz! Egi aundiya esaten zuben Iparraguirre'k zortziko polit artan: "...bañan biyotzak diyot: Zoaz Euskal-errira." Bein baño geyagotan abestu det nik abesti ori biyotza poztutzearren zar eta gazte askori, eta orain, ni arkitzen naiz poz orren bearrez; beti zai lagunen bat etorriko ote dan, arekin bertso zar batzuek abestutzeko. Oraindik zer-edo-zer egiten det; etorri dedilla lagun ori, bigarren abotsarekin lagunduko diyot poz aundiyakin.

Azkenik, zaletasunik aundienakin itxaroaz egongo naiz New York'en, errebisten argazkiak ikusi eta bertako kontubak irakurtzeko. Orrela, nere biotzak artzen duben pozarekin, nere bizi-modu berriyari bultzakada itxaropentsu bat emango diyot:

Egi aundi bat esan nai nuke
Ipar-Amerika ontatik
Orko jai alai umoretsuak
ikusten nago oraindik
Zein egon leiken egun oyetan
begira zulo batetik!
Bañan Jainkoak orrela nai du,
esaten det biotzetik;
Ni urrutian egotia gaur
iñork ez dauka errurik.
Alegin asko egingo ditut
juteko orruntz emendik:
Al baldin badet erri abetan
ez det utzi nai ezurrik!

New York'en, 1963-ko Garagarrillean

O. T. S.